

«Ofentsiba jarri behar da martxan euskarak aurrera egin dezan»

Markel Olano • Gipuzkoako ahaldu nagusia

COVID-19aren izurriak «definizio prozesu bat» eragin du Gipuzkoako Aldundian, Olanoren arabera. Baikor dago lurraldearen egoera ekonomikoarekin, baita aurrera begira ere: «Gure txikian, badugu aukera erreferentzia izateko».

Jon O. Urain Donostia

Labik asteazkenean eginiko bilaren ondoren hartu zuen Markel Olanok (Beasain, Gipuzkoa, 1965) BERRIA. Haren esanetan, «ikuspegi gazi-goza» izan zuten batzordean: «Kutsatze tasaren gorakada oso kezagarria» batetik, ospitaleetako egoera «dezente lasaia», bestetik. «Kezka zegoen; hamabost egun barru egingo dugu beste irakurketa bat».

Osasunaren ikuspegitik, bazurdiaren argia agertzen ari zela tunelaren bestaldean. Bada argirik?
Olatu klasiko bat bizi dugu. Mallorcatik etorritako gaztetxo gehienak gipuzkoarrak ziren, eta horrek eragin zuzena dauka. Txertoaren eragina ere nabarmena da. Kutsatze komunitarioaren ikuspegitik, horrek ekarri du aurreko olatuan ospitaleetan izandako emaitzak oraingo ez errepikatzea. Ezin dugu alde batera utzi eman dugun aurrerapausoaren aitorza.

Ekonomikoki, susperraldia dator?

Bi alde dauzkagu. Bat, industriaren egoera: aurreikuspena eta errealitatea oso onak dira. Hurrengo hilabeteetan jardura ekonomikoa berreskuratzea joko dugu. Bestetik, zerbitzuak; ez daukate aukerarik denbora gutxian jardura berreskuratzeke, eta larriena da uda estrainioa dugula. Hor daude argia eta itzala. Lurralde bereziki industrialak izaki, eboluzio orokorra ona da.

Turismoak Gipuzkoako ekonomian duen pisua kontuan hartuta, haren egoerak zenbat eragiten du aldundiaren kontuetan?

Sektorea Gipuzkoako barne produktu gordinaren %8 da: 35.000 lanpostu. Pisu handiko arloa da. Horrek zerga bilketan eragiten

du. Nolanahi ere, egia da zerbitzuen sektoreak arnasa hartzen duela industriak arnasa hartzen duenean. Gizarteak pixkanaka konfiantza berreskuratzen duen eran, kontsumoa areagotuko da. Psikologikoki oso gogorra izan da, baina egia da disfruta daitekeela segurtasunari eutsiz.

Egoera buru osasunean uzten ari den arrastoak kezkatzen al zaitu?

Adituek esan dute lehen hilabeteetan gaitz psikologiko eta psikiatrikoen atala estalita geratu zela, baina pixkanaka errealitate hori atara dela ikusi dugu. Estres psikologiko horrek derrigorrez txarra izan behar du eritasun mentalentzat. Zaindu beharko dugu.

Legealdi erdia igaro da. Nolako balorazioa egiten duzu?

Legealdia ambizio handiz hasi genuen; pandemia etorri zen, eta hankaz gora bota zituen gure plan guztiak. Askori entzuten diet pandemiak prozesu batzuk bizkortu dituela. Legealdi hasieran ezarri genituen zenbait prozesu indartu behar izan genituen. Pandemiak definizio prozesu bat eragin du aldundian. Lehentasunak ezartzean, mugimendu bat egin dugu horiei arnasa emateko.

Zehazterik?

2017an, Etorkizuna Eraikiz martxan jarri genuen. Pandemiak ekarri du hainbat arlotan ikustea sendotze hori ezinbestekoa dela. Mubil, Ziur... Prozesu horiek apustu oso inportantea izan dute, baita pandemiaren testuinguruan ere. Etorkizuna Eraikiz erduak gobernantza aldaketa bat ekarri zuen, eta gizartearekin harremana aldatzea. Dozenaka proiektu jarri dira martxan gizartearekin harremanean, eta askok zerikusia daukate pandemiak nabarmendu dituen atalekin. Pan-

demiak sakondu egin du Mendebaldean herritarrek arlo politikoarekin daukaten mesfidantza, eta Etorkizuna Eraikiz-ek justu horri egin nahi dio aurre.

Gipuzkoarren %77k ez dute konfiantzarik erakundeetan. Nola bizi da hori erakundeen ikuspegitik?

Hasi ginenean [2007], esan genuen ezinbestekoa zela kultura politiko berri bat mesfidantza gainditzeko. Mesfidantza horrek



[Adinekoen egoitzen gatazkan] zubigintzan lagundu dezakegu guk, baina mahaian esertzen direnek dute ardura»

«Oinarrian, bizirik diraute legebiltzarrean [Autogobernu Lantaldean] onartu ziren oinarri eta printzipioek»

gora egin du. Gurea ereite lana da. Herrigintzaren, nazio eraikuntzaren eta sistema demokratikoaren osasunaren ikuspegitik, onartezina eta izugarritzko zama da jendea urrun edukitzea.

Zer espero duzue Next Generation funtsetik?

Europak estatuei hiru urteko esparru bat ezarri die, eta, urtero, Espainiako Gobernuak bere deialdiak izango ditu. Konfiantza handia daukat Gipuzkoak aurkeztu dituen proiektuetan, agenda politiko eta sozioekonomiko berri horretan ezagutza handia dugulako lurralde moduan. Gure txikian, badaukagu aukera erreferentzia izateko.

Zer izan da gogorrena COVIDaren kudeaketan?

Egoitzetako 323 hildakoak. Kudeaketa publikoan gaudenok

dezente sumatu dugu; Maite Peña Gizarte Politikako diputatuaren ibilbidea ikusi dut, eta hildako horiek barruan zeuzkan. Horrek asko markatu du gauzak egiteko modua, eta kudeaketan dinamikoagoak izatera bultzatu gaitu, aurreratzera; oro har, sektoreekin onartu egin du hori, eta sektoreekin dugun harremana estutu da. Egoitzetako langileen portaera izugarria izan da. Ezin da esan dena ondo egin denik,

baina inplikazioa izugarria izan da. Ez da egon soilik lehenetsun profesionala; inplikazio afektibo handia ere egon da.

Langileek 250 egun bete dituzte greban. Zer moduz doa elkarriketa mahaia?

Pandemiak bete-betean jo du; %100eko gutxieneko zerbitzuak jartzearekin, greba horrek zeukan ikuspegia

distortsionatu da. Arazoak hor jarraitzen du, eta bere momentuan eten ziren zenbait prozesu jarraitu beharko dute, adostasunaren bidetik. Guk, aldundi moduan, mugak ezarri ditugu finantzaketaren arloan, kontuan hartuta gure inguruan Gipuzkoak duela finantzaketarik handiena arlo horretan. Muga horien barruan, eragile bakoitzak bere ardura dauka, eta, halako gatazka sortzen direnean, gerturatze bat egon behar da, negoziazioa eta adostasuna, eta mahaian esertzen direnek dute ardura. Guk lagundu dezakegu zubigintzan, eta ahalegina egingo dugu, baina ezin zaigu leporatu ardura.

Bidesariei buruzko bi foru arau baliogabetu dizkizute, eta hirugarrena prestatzen ari zarete. Zertan izango da desberdina?



N-1ean, sartu-irten asko daude; guztietan arkuak jartzeak izugarritzko inbertsioa eskatuko luke. Guk esan genuen zati batzuetan jarriko genituela. Espainiako garraioari helegitea jarri zuten, eta auzitegiak arrazoia eman zien. Bigarren foru arauak datuak aurkeztu genituen, baina ez zituzten onartu gure argudioak. Beste agertoki batera iritsi gara; printzipio nagusia eta Batzar Nagusiek hartutako irizpidea hauxe da: bidesariari eutsi behar zaio; horretarako, ikuspegi pragmatiko batekin onartu behar dugu auzitegiak dioena: N-1 guztian izan behar dira bidesariak. Horretarako azpiegiturak egokitu behar dira. Hirugarren foru arauak hori ekarriko du: **Buruntzaldeko autobus zerbitzua aldatu berri da; bidaia ko-**



GOTZON ARANBURU / FOKU

purua urritu da, eta, lehen astean, jende asko galduta egon da.

Aldaketa guztiek ekartzen dute trantsizio aldi bat; aztertu behar du. Guk ere jakin dugu herriaren aldetik noraez puntu bat egon dela; baloratu behar du, eta egin beharreko aldaketak egingo ditugu.

EAEko Auzitegi Nagusiak Irungo Udalaren kontratazioetako hizkuntza irizpidearen aurka jo du. Kezkatzen al zaitu izan dezakeen eraginak?

Euskararen normalizazioak bidea egin du administrazio publikoan. Horrek normalizazioa ekarri du ezagutzan eta erabileran. Horrek bazeukan kontsentsu politikoa. Epaitegien irakurketa horren kontra doa; kezkarria iruditzen zaigu.

Nola aurre egin horri?

Defentsa lana behar dugu, baina ez da aski; euskara bidegurutzean dago, eta zenbait prozesu indartu behar ditugu. Inportanteena erabilera da. Defentsa soila ez da nahikoa, ofentsiba jarri behar da martxan: zibila, abegikorra, adimentsua, euskararen estatusak aurrera egin dezan. Horretarako, euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko elkarlana eta aliantza da oinarrian dauzkagun indargune inportanteenetako bat. Landu egin behar da hori, eta ekinaldi gero eta anbiziotsuagoak martxan jartzeko, ezinbestekoa dugu konfiantza areagotzea.

Izurriak agerian utzi ditu Espainjako Gobernuaren eta Jaurlari-tzaren arteko desadostasunak eskumenen arloan. Sen birzentralizatzaile bat antzeman duzu? Badago sen hori, baina, beste alde

batetik, zenbait eskuduntzatan aurrera egin dugu. Euskal alderdi abertzaleek eta bereziki EAJk argi izan dugu Espainiako Gobernuak babes politikoa behar duela Madrilen, baina horrek konfiantza ekarri behar du, eta konfiantza horrek korapilo batzuk askatu



[EAJ eta EH Bilduren arteko] konfiantza etetea oso kaltegarria izan da. Oraindik ez diogu buelta eman, tamalez»

behar ditu. Eta hor gazi-gozoak daude. Tentsioari eutsi behar diogu. Gobernu horri euskarri bat ematearekin batera, presioari eutsi behar zaio gure agenda hizpidera ekartzeko.

Talka agerikoa izan zen alarma egoera indarrean jarri zenean, baina oraindik ere azaleratzen da, adibidez Espainiako Lurralde Artek Osasun Kontseiluan.

Jarrera batzuk kezkarriak izan dira. Gure tentsioari eta defentsari eutsi behar diegu. Pandemia aitzakia hartuta, jokabide batzuk azaleratu dira: ematen zuen ikuspegi zentralizatuak lan txukunagoa egin zezakeela. Logika horren kontra nago, guztiz: gure autogobernu sistemak erakutsi du guk gure esku-menak txukunago kudeatzen ditugula, behar sozialetatik gertuago.

Estatus politikoa buruzko eztabaidarako, Andoni Ortuzarrek hiru zutabe aipatu ditu: nazio ai-

tortza, alde biko harremana eta berme sistema bat. Erabakitzeko eskubidea ez du aipatu. Zer iruditzen zaizu?

Gure alderdiak erakutsi du: erabakitzeko eskubidearen dibulgatzaile eta bultzatzaile nagusia Ibarretxe lehendakaria izan zen. Harrezkero, ibilbide luzea izan da; oinarri eta printzipio batzuk onartu ziren, eta horietan garbi dago erabakitzeko eskubidearen printzipioa. Gure pisu politikoa hor jarri dugu. Erabakitzeko eskubideaz egiten dugun irakurketak badauka lotura eskubide historikoekin. Hor printzipio demokratikoa irakurketa historiko batekin lotzen da; horrek gure foru tradizioarekin lotzen gaitu. Gero, ikuspegi estrategikotik garatu behar da hori, eta tartean etorri da Kataluniakoa; horrek talka bat adierazi du, baina baita estatu ereduaren inguruko zantza handi bat ere. Estatu eredu berri baterantz joan behar badugu, guk ere partaide izan behar dugu.

Oinarriak eta printzipioak onartu ziren, baina gauzak aldatu dira, eta Ortuzarrek elkarrizketa batean baino gehiagotan aipatu ditu hiru zutabe horiek.

Ez dut ikusten kontraesanekoak diren erabakitzeko eskubideekin; ez dut ikusten inola ere gure alderdiak alde batera utzi duenik. Balio politiko hori hizpidera ekarri genuenean, eskubide bat ezarri genuen gure herriak haren etorkizuna erabakitzeko. Hori demokratikoki inpekablea da, printzipio gisa ukaezina. Gero, hori errealitatean eraman behar da, eta hor dago koska. Oinarrian, bizirik diraute legebiltzarrean onartu ziren oinarri eta printzipioek.

Esana duzu azken legealdia duzula. Zein duzu urteotako lorpen kutunena?

Etorkizuna Eraikiz. Horrek aldaketa bat sortzen du, eta aldaketa hori gauzatzea tokatu zaigu.

Arantzarik?

2011-2015erako legealdian Bildurenekin eduki genuen talka hori oraindik hor dagoela.

Ez diozue buelta eman.

Ez. Oraindik oinarritzko talka bat dago. Ezker abertzaleko ardura-dun batzuek pentsatu zuten Gipuzkoan EAJ ez zela aurkaria, baizik eta etsaia, eta estrategia horretara egokitu zuten. Helburua ez zen izan EAJ irabaztea, baizik eta EAJ suntsitzea. Horrek asko markatu du; niretzat, puntu beltza da, argitu beharrekoa. Beti esan izan dut abertzaletasunak oinarrian adostasun batzuk landu behar dituela, eta konfiantza etetea oso kaltegarria izan da. Oraindik ez diogu buelta eman, tamalez.